ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2017ko azaroaren 3a, ostirala • 126 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Kultura taldeei dirulaguntzak emateko 2017ko aparteko deialdia

Udal honek, udalbatzaren 2017ko urriaren 11ko bilkuran, onartu zituen kultura jarduerak egiteko laguntza aparteko deialdiaren oinarriak.

Bat etorriz Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan aurreikusitakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

Kultur jarduerak sustatzeko dirulaguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak. Aparteko deialdia, 2017

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kultura jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, hain zuzen ere elkarte eta entitateek 2017. urtean Iruña Okan sustatzen dituztenak edo udalerriarentzat interesgarri jotzen ahal direnak.

2. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kultura elkarte eta entitate publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan izanik edo jarduera udalerri horretan gauzaturik, legez eratuak edo erregistratuak badaude, betiere ohiko deialdian eskabiderik aurkeztu ez bazuten (ALHAOren 2017ko ekainaren 7an argitaratu zen ohiko deialdia).

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura xederik ez duten elkarte eta erakundeak, kirol klubak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

Egiten duen lana aitortzen zaie egoitza udalerrian duten eta urtean zehar, Iruña Okako Udalarekin elkarlanean, hainbat jarduera gauzatzen dituzten elkarte guztiei.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute gure udalerrian kultura sustatzera edota hedatzera zuzendutako jardueren urteko programek, Iruña Okako Udalaren 2017rako aurrekontuko 334.481.000 partidaren kontura.

Honako hauek ere dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte deialdi honen bidez: kirol eta kultura jarduera espezifikoak garatzeko Iruña Okako Udalarekin lankidetza hitzarmena sinatuta daukaten erakunde eta elkarteak.

4. Gastuak ezin daitezke diruz lagundu

Deialdi honen aplikazio eremutik kanpora geratzen dira, espresuki, ondasun higigarri eta higiezinak eskuratzeko eta obrak egiteko dirulaguntza eskaerak.

Beste gastu hauek ere ez dira diruz lagunduko: protokoloa, ordezkaritza, luxuzkoak, inbertsioak, azpiegiturak, ez eta otorduak, gonbitak eta zinez kultura jardueraren berezko jotzen ez direnak ere

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

5. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzak emango dira programaren kostuaren arabera eta programa partez ordaintzeko dituen baliabideen arabera; garrantzitsua da, eta kontuan izan behar da, sustatzaileak bere baliabideak sortu ahal baditu edo beste administrazio publiko batzuetatik eskuratu ahal baditu.

Dena den, udalak bere interesekoak diren programa jakin batzuk modu berezian izapidetzeko aukera izango du, eta horiek aurreikusitako moduan garatzen direla bermatzeko zenbait baldintza ezarriko ditu.

Dirulaguntzen baturak ezin izango du inola ere 3.345 euroko zenbatekoa gainditu, Iruña Okako Udalaren 2017rako aurrekontuaren 334.481.000 partidaren kontura.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ezingo da izan inoiz jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste administrazio publikoek edo entitate pribatuek emandakoekin, betiere onuradunak helburu bererako jasotzen dituen laguntza, dirulaguntza edo sarreren baturak ez badu gainditzen egitekoa den jardueraren kostu osoa.

7. Dirulaguntzak emateko prozedurak Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

7.1. Dirulaguntza hauetarako deialdia organo eskudunak egingo du, iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko den iragarki baten bidez.

7.2. Udalaren bulegoetan eskuratu daitekeen inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dira eskabideak -I. eranskina-

Agiri hauek ere erantsi behar dira:

a) Eskaera sinatu duenaren NANaren edo IFZren fotokopia.

b) Elkartearen edo erakundearen ordezkaritzan diharduela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

c) Erakundearen estatutuen fotokopia eta Eusko Jaurlaritzaren elkarte eta erakundeen erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Salbuespen dira elkarteen udal erregistroan erregistratutako elkarte eta erakundeak, ez bada behintzat erregistratu ondoren aldaketaren bat izan dutela.

e) Jardueraren edo programaren proiektua (helburuak, egutegia, baliabideak, eta abar).

f) Jarduera bakoitzaren kostua, kontzeptuka xehatuta; adierazi beharko da horietako zeinetarako eskatu zaizkien edo eskatuko zaizkien laguntzak erakunde publiko zein pribatuei.

* Lehendik C) idatz zatian zehaztutako dokumentazioa aurkeztu duten erakundeek ez dute agiriok berriro aurkeztu beharrik, nola eta ez den aldaketaren bat gertatu.

7.3. Eskaerak Iruña Okako Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira, edo Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legeak 38.4. artikuluan ezarritako moduan, hurrengo klausulan aurreikusitako epeen barruan.

Aurkeztutako eskaerek ez badituzte aipatutako betekizunak betetzen, udalak 10 egun emango dizkie interesdunei antzemandako irregulartasunak zuzentzeko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak eskaeran atzera egin duela ulertuko da, beste izapiderik gabe.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

8. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta zazpigarren oinarrian aipatzen den dokumentazioa aurkezteko epea hamar egun baliodun izango da, deialdi hau udalaren iragarki taulan eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

9. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Dirulaguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko balorazio irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira, hurrenkera honetan:

1. Kultura eta kirol jardueren programa barruan, Iruña Okako Udalarekin izan ahal den lankidetza eta elkarreragin maila 20 puntu.

2. Programak edo jarduerak zenbateraino laguntzen duen kultura hedatzen, indarberritzen eta sustatzen: 15 puntu.

3. Erakunde eskatzaileak proposatutako kultura arloko jarduera edo programan erakutsi duen jarraitutasun eta egonkortasuna: 10 puntu.

4. programa 15 Programak aurrera egingo duela bermatzeko eskura dauden baliabideak (azpiegiturak, baliabide material eta ekonomikoak eta giza baliabideak): 15 puntu.

5. Programaren edo jardueraren originaltasuna edo leku berean antzeko programarik ez egotea: 20 puntu

6. Jardueran euskara erabiltzea 10 puntu.

7. 10 Jardueraren hartzaile kopurua: 0 puntu.

8. Aurkeztutako jarduera programan genero ikuspuntua txertatzea, bereziki genero rola eta emakumeen eta gizonen ikuspegi estereotipatuak apurtzeko egiten direnak: 10 puntu

10. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Diru laguntzen azterketa eta, hala dagokienean, emakida edo uko egitea, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero egingo dira.

10.2 Udalak, egoki jotzen dituen kasuetan, aurkeztutako agirien inguruko datuak eta azalpenak eskatu ahal izango ditu; espedientea atzeratu, eta are artxibatu egin ahal izango da, datu eta azalpen horiek ez badira bideratzen Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legean ezartzen diren epeetan, eta dagokion eskaerari aplikagarria izango zaio deialdiaren bosgarren oinarriaren azken paragrafoa.

10.3 Eskaera bakoitzarekin lotutako izapide guztiak bete eta kultura batzordeak irizpena eman ondoren, udalbatzak edo organo eskudunak ebazpena emango du gehienez ere hiru hilabeteko epean, eta esanbidezko ebazpenik eman ezean, dirulaguntza ukatu dela ulertu ahal izango da.

10.4. Ebazpenean, baiezkoa bada, datu hauek agertuko dira: dirulaguntzak zein eskatzailerentzat edo eskatzaile zerrendarentzat proposatzen diren, dirulaguntzen zenbatekoak, ordaintzeko modua, eragindako programa edo jarduera, eta zein baldintzatan ematen diren dirulaguntzak.

11. Dirulaguntzen justifikazioa.

Diruz lagundutako entitateak behartuta daude emandako dirulaguntzaren kontura egindako gastuen ehuneko 100 justifikatzera.

2017ko ekitaldiko dirulaguntzak justifikatzeko epea 2017ko abenduaren 15era arte egongo da irekita.

Salbuespen gisa, gastuak 2017ko abenduaren 1a eta 31 bitartean egiten badira, justifikazioa aurkezteko epea 2018ko urtarrilaren 15a arte luzatuko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

12. Dirulaguntzak ordaintzea.

— Urteko programetan, aldez aurretik ordaindu ahal izango da, gehienez, dirulaguntzaren % 50.

— Ezohiko programetan eta jarduera puntualetan, dirulaguntza ebazpenean adierazitako gehieneko epean ordainduko da, aurrez aurkeztuta justifikazioa eta jardueraren memoria.

— Dirulaguntza aurrez ordaindu ahal izango da, aurreko oinarrian ezarri bezala onuradunak egin beharra daukan justifikazioa baino lehen, baldin eta dirulaguntza ezinbesteko finantzaketa bada jarduera egin ahal izateko.

Dirulaguntzen ehuneko 100 ordaindu aurretik, justifikatu egin beharko da eman diren funtsak emandako helbururako erabili direla.

13. Justifikazio kontu erraztua

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 75. artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako dirulaguntza justifikatzeko, hamaikagarren klausulan ezarritako epearen barruan, gastuaren justifikazio kontu erraztua udalean aurkeztu beharko da, II. eranskineko ereduaren arabera. Kontu horrek ondoko agiriak jaso beharko ditu:

a) Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena.

b) Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

Dirulaguntza ematen duen organoak, oinarri-arauetan ezartzen diren laginketa tekniken bitartez, egoki jotzen dituen justifikazioak egiaztatuko ditu, dirulaguntza behar bezala erabili dela zentzuz ziurtatzeko, eta horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio hautatu dituen gastu justifikazio agiriak helarazteko.

14. Onuradunaren betebeharrak

a) Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartutako jarduera burutzea.

b) Korporazioari egiaztatzea jarduera egin dela, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntzaz gozatzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.

c) Men egitea emandako laguntza eta dirulaguntzekin lotutako egiaztatze ekintzei.

g) Helburu bererako lortutako beste laguntza edo dirulaguntzen berri ematea korporazioari.

15. Dirulaguntzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, edozer dela ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu eta dirulaguntzaren zati bat itzuliko da.

16. Babesa

Deialdi honen bidez dirulaguntza jasotzen duten erakundeak behartuta daude berariaz eta modu argian adieraztera Iruña Okako Udalaren babesa izan dutela, diruz lagundutako programa edo jarduerari buruz argitaratzen dituzten egitarau, iragarki kartel eta argazkietan eta gainerako materialetan, argazki, idatzi nahiz soinuzkoak direla.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Halaber, jarduerak iragartzeko egitarau eta karteletan autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

Orobat, saiatu egin beharko dute aplikatzen, ahal den neurrian, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, ezartzen dituen printzipio orokorrak.

17. Dirulaguntza galtzea

Erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak gal ditzakete, aurrez espedientea irekita, honako kasu hauetan:

a) Aurkeztutako eskaeran eta agirietan datu faltsuak jarri badira.

b) Emandako dirulaguntza aurkeztu eta onetsitako programarako erabili ez bada.

c) Likidazioak aurkezteko epea amaitu eta berariaz eskatu arren, aurkezten ez bada.

d) Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen badu.

e) Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntzak emateko erabakian finkatutako betebeharren bat konplitzen ez bada.

18. Garapena

Alkate-lehendakariak deialdia garatzeko egoki jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan arututakoa bete egin dela. Horretarako, onuradunek beren gain hartzen dute egiten dituzten jarduerei buruzko datu eta agiriak emateko konpromisoa, udalak hala eskatzen dienean.

19. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean edozein zalantza izanez gero, udalaren kasuan kasuko batzordeak ebatziko du.

Oinarri hauetan xedatu gabekoetan lege-arau hauetan xedatutakoa aplikatuko da: aurrekontua gauzatzeko udal arauan jasotako oinarrizko arauak eta aplikatzekoak diren gainerakoak; Iruña Okako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Araudi Orokorra onartzen duena.

20. Errekurtsoak

Deialdi hau zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza oro inpugna daiteke, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta bertan jasotzen den eran.

21. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn, udalaren iragarki taulan eta ohiko leku publikoetan argitaratuko da, eta udalerrian ahalik eta zabalkunde handiena emango zaio.

Iruña Oka, 2017ko urriaren 11

Alkate lehendakaria
JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2017.11.03 06:47:29 Z